

Memoriaren eguna 2024 Día de la Memoria

Ekarpenak | Aportaciones

Azaroaren 10a
10 de noviembre

Memoriaren,
Bizikidetzaren eta
Giza Eskubideen
Institutua

gogora

Instituto de la Memoria,
la Convivencia
y los Derechos Humanos



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA GIZA
ESKUBIDEEN SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y
DERECHOS HUMANOS



gogora

www.gogora.euskadi.eus

2024. Gogora





Memoriaren eguna

2024

Día de la Memoria

Ekarpenak | Aportaciones

Azaroaren 10a
10 de noviembre

gogora



gogora

Memoraren
eguna
2014
Dialekto
Memoria





EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ARTZINA ETA OSES
ESPARRUEN ZALAZA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y
SERVICIOS JURIDICOS

Memoriaren eguna
2024
Día de la Memoria

Introducción

En el Día de la Memoria la sociedad vasca recuerda a las víctimas del terrorismo y la violencia policial ilícita.

Inciendo en el valor pedagógico de la memoria, el Día de la Memoria es también un día para el diálogo y la reflexión.

En esta edición, Gogora ha querido reconocer a las personas que, de una forma u otra, a veces de manera anónima, otras de forma más visible, rompieron con el miedo, alzaron la voz en su entorno más cercano contra la violencia y la intolerancia, y mostraron su cercanía a las víctimas.

Recuperar esos gestos, en defensa de los derechos humanos, de aquellas y aquellos que defendieron valores democráticos, de no violencia y de convivencia en momentos difíciles, y darles el lugar que merecen en la memoria democrática de Euskadi ha sido objetivo principal del acto de este año.

Por ese motivo, convencidos de que lo acontecido en el del Día de la Memoria, celebrado el 10 de noviembre en el Palacio Villasuso de Vitoria-Gasteiz, constituyen un legado útil para la sociedad actual, recogemos en este documento las aportaciones de representantes institucionales, víctimas, la periodista Jeni Prieto y los bertsolaris Xabier Euzkitze y Ekaitz Goikoetxea.

Alberto Alonso *director del Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos GOGORA*

Sarrera

Memoria Egunean euskal gizarteak terrorismoaren eta legez kanpoko polizia indarkeriaren biktimak oroitzen ditu.

Memoriak duen balio pedagogikoan indarra jarriz, Memoria Eguna pentsa arazteko, hausnarketarako, eguna ere bada.

Aurtengoan, Gogora Institutuak modu batera edo bestera, batzuetan modu anonimoan, beste batzuetan modu ikusgarriagoan, beldurrarekin hautsi zuten, indarkeriaren eta intolerantziaren aurka beren ingurune hurbilenean ahotsa altxatu zuten eta biktimekiko hurbiltasuna erakutsi zuten pertsonak aitortu nahi izan ditu.

Giza eskubideen, balio demokratikoak defendatu zituztenen, indarkeriarik ezaren eta une zailetan bizikidetzaren aldeko keinu horiek berreskuratzea eta Euskadiko memoria demokratikoan merezi duten lekua ematea izan da aurtengo ekitaldiaren helburu nagusia.

Horregatik, Gasteizko Goiuri Jauregian 2024ko azaroaren 10ean, jazotakoak egungo gizartearentzat erabilgarri direla sinetsita, erakundeetako ordezkariak, biktimek, Jeni Prieto kazetariak eta Xabier Euzkitze eta Ekaitz Goikoetxea egun horretan egindako ekarpenak jaso ditugu esku artean dituzun dokumentu honetan.

Alberto Alonso Memoriaren, Bizikidetzaren eta
Giza Eskubideen GOGORA Institutuaren zuzendaria

Aportaciones en el Día de la **Memoria**



Imanol Pradales

*Lehendakariaren hitzak
Discurso del Lehendakari*



María Jesús San José

*Justizia eta Giza Eskubideen
sailburuaren hitzak
Discurso de la Consejera de Justicia
y Derechos Humanos*

Memoriaren egunari egindako ekarpenak



Biktimen ahotsa
La Voz de las víctimas



Jenni Prieto
Kazetaria
Periodista



Xabier Euzkitze
Bertsolaria

Ekaitz Goikoetxea
Bertsolaria

Imanol Pradales
Lehendakaria

Gogorza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA GIZA
ESKUBIDEEN GAILA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y
DERECHOS HUMANOS

Gogorza

M
G



Lehendakariaren hitzaldia
ikusi eta entzuteko
Para ver y oír el discurso
del Lehendakari



Herri agintari eta ordezkariok, biktima eta biktimen senitartekoak, Gogora Institutuko kideok, jaun-andreok, egun on!

Gure herriak asko sufritu du. Gure herriko milaka eta milaka pertsonak badakite infernua bizitzea zer den. Horietako asko ez daude gaur hemen gurekin. Norbaitek soberan zeudela erabaki zuen egun batean.

Memoriaren Egunak ispiluaren aurrean jartzen gaitu. Nondik gatozen eta bakoitza non geunden gogorarazteko balio digu. Hiru milioi pertsona gara gure herrian eta, portzentaje handi batek, terrorismo eta biolentziaren aurpegia nolakoa den aurrez aurre ezagutzeko patu tristea izan du. Zuzenean edo zeharka, ondo dakigu gure bizilagunen artean baten-batek jazarpena, estortsioa, bortizkeria, tortura, mehatxuak edo biolentzia bere azalean sufritu duela.

Errealitate hori gurea da. Beste leku askotan, historia hurbilean, ez dute horrelakorik bizi izan. Tamalez, guri dagokigu zama hori. Hori dela eta guk bakarrik egin beharko diogu aurre gure historiari. Zintzotasunez, gardentasunez, ispilu horren aurrean biluztuz.

Indarkeriaren iragana argitzeko konpromisoa guztiona izan behar da. Ez bakarrik guregatik. Datozen belaunaldiengatik baita ere. Giza eskubideen urraketen biktima guztiei elkartasuna, aitortza eta ordaina emateko konpromisoa guztiona izan behar da. Ez bakarrik guregatik. Datozen belaunaldiengatik baita ere.

Biolentzia guztiak gaitzetsi behar ditugu. Ez bakarrik gure betebeharra delako. Datozeneri zor diegulako, baita ere. Balio horien gainean bakarrik eraiki ahal izango dugu gure herriaren etorkizuna. Hemen bizitakoa berriz gertatu ez dadin. Inork ere ez dezan berriz horrelakorik pairatu.

Utzidazue gaur Memoria pertsonaleko ariketatxo bat egiten.

Representantes y autoridades públicas, víctimas y familiares de víctimas, miembros de Gogora, señoras y señores, ¡buenos días!

Nuestro país ha sufrido mucho. Miles y miles de personas saben bien lo que es vivir el infierno. Muchas de ellas no están hoy aquí acompañándonos. Alguien decidió un día que sobraban.

El Día de la Memoria nos coloca frente al espejo. Nos sirve para recordar de dónde venimos y dónde estábamos cada uno y cada una. Somos tres millones de personas y muchas de ellas ha tenido el triste destino de conocer de cerca cómo es el rostro del terrorismo y la violencia. De forma directa o indirecta, sabemos de alguna vecina, de algún conocido, que ha sufrido acoso, extorsión, violencia, tortura, amenazas o violencia.

Esta es nuestra realidad. En muchos otros lugares, no han vivido nada parecido en su historia reciente. Lamentablemente, nos corresponde a nosotros esta carga. Por lo tanto, tendremos que afrontar nuestra historia en solitario. Con sinceridad, con transparencia, desnudándonos ante el espejo.

El compromiso de esclarecer el pasado de violencia debe ser compartido. Un compromiso de la sociedad actual, pero también para el futuro. El compromiso de solidaridad, reconocimiento y reparación a todas las víctimas de vulneraciones de derechos humanos debe ser de toda la sociedad. Un compromiso de la sociedad actual, pero también para el futuro.

Tenemos que condenar todas las violencias. Además de ser nuestra obligación, se lo debemos a las próximas generaciones. Sólo sobre esos valores podremos construir el futuro de nuestro país. Para que no se repita lo aquí vivido. Para que nadie vuelva a sufrir nada semejante.

Permitidme hacer hoy un pequeño ejercicio de Memoria personal.

Gogoan dut poliziaren abusua jasan zuen pertsona bat ikusi nuen lehen aldía. Santurtzin izan zan. 9 urte baino ez nituen.

Gizon bat markatuta ikusi nuen, bi begiak ubelduta zituela, gure ondoan eserita taberna batean. Ezin nion begirik kendu. Amak ez begiratzeko esan zidan, ordea. Urte batzuk geroago kontatu zidan zer gertatu zitzaion.

Gogoan dut, halaber, gaztetan, nola joaten ginen Portugaletera larunbatetan. Eta nola, astebururo-astebururo, irudi bera errepikatzen zen: dozenaka kaputxadun molotov koktelak eskuan, aurrean zuten guztiari su emanaz. Edo autobus bat gurutzatzen zuten bestela, eta batzuetan su eman ere bai. Hori guztia paisaiaren parte zen. Min ematen zigun. Sekulako amorrúa sortzen zigun. Inpotentzia eragiten zigun. Larunbat askotako ohitura tristearen parte zen.

Nire bizipen pertsonalen adibideak dira, ume edo gazte nintzenekoak. Zoritxarrez, euskaldun bakoitzak bere esperientzia du. Tamalez, gogoan ditut gertakari askoz gogorragoak, askoz ere larriagoak. Jada gurekin ez dauden pertsonak, bahituak izan zirenak edo urte luzez beldurrak airean bizi behar izan zutenak.

Ondo gogoan dut, horrekin batera, euskal gizartearen gehiengoak indarkeria eta bidegabekeria horren aurka izandako erreakzioa. Erreakzio espontaneo, zintzoa, modu askotara adierazia, bai eremu publikoetan bai pribatuetan, baina beti hor egon zena. Gaur, pertsona horien guztien ekarpena aitortzen dugu.

Memoriaren Egun honek gogoratzeko eta transmititzeko balio behar digu. Sozializatzeko.

Printzipio eta balio etiko eta demokratikoen gainean eraiki behar dugu memoria. Egiaren gainean eraiki behar dugu. Memoria zintzoa, argia eta justua. Urte luzetako beldurrak, injustiziak eta minak eragindako sufrikarioaren mailan egongo dena.

Memoria osoa, diskriminaziorik eta ahanzturarik gabea.

Memoria mendekurik gabea, kritikoa eta autokritikoa, autojustifikazioan eta autokonplazentzian oinarritutako kontakizunak gaindituko dituena. Hori izan behar da gure konpromiso humanoa eta etikoa. Zer pentsatzen ote du hemen ikusten gaituen 13, 14 edo

Recuerdo mi primer contacto con una persona que había sufrido abuso policial. Fue en Santurtzi. Apenas era un niño de 9 años.

Vi a un hombre marcado, con los dos ojos amoratados, sentado al lado nuestro en un bar. No podía apartar mi mirada. Ama me invitó a que dejara de hacerlo. Años más tarde me contó lo que le había pasado.

Recuerdo también cómo, de jóvenes, solíamos ir los sábados a Portugalete. Y cómo, fin de semana, sí, y fin de semana, también, se repetía la misma estampa: decenas de encapuchados con cócteles molotov, dándole fuego a todo lo que se les ponía por delante. Cuando no cruzaban un autobús, al que en ocasiones también daban fuego. Todo aquello era parte del paisaje. Nos dolía. Nos daba muchísima rabia. Nos producía impotencia. Era parte de la triste rutina de muchos sábados.

Son ejemplos de mi vivencia personal de cuando era niño o joven. Por desgracia, cada vasca o vasco tiene su propia experiencia. Lamentablemente, recuerdo algunos episodios muchísimo más duros, muchísimo más graves. Personas que ya no están con nosotras y nosotros, que fueron secuestradas o que tuvieron que vivir con terror durante muchos años de sus vidas.

Recuerdo también la reacción contra esta violencia e injusticia protagonizada por la gran mayoría de la sociedad vasca. Una reacción espontánea, sincera, que se manifestó de diferentes maneras, tanto en espacios públicos como privados, pero que siempre estuvo ahí. Hoy reconocemos la contribución de todas esas personas.

Este Día de la Memoria debe servirnos para recordar y transmitir. Para socializar.

Debemos construir la memoria sobre principios y valores éticos y democráticos. Debemos construir sobre la verdad. Una memoria sincera, clara y justa. A la altura del padecimiento tras tantos años de terror, injusticia y dolor.

Una memoria completa, sin discriminaciones ni olvidos.

Una memoria no revanchista, crítica y autocrítica que supere los relatos autojustificativos y autocomplacientes. Ese debe ser nuestro compromiso humano y ético.

15 urteko gazte batek? Horixe galdetzen diot gaur neure buruari. Pertsona horrekiko obligazioa dugula sentitzen dut. Harengana zuzendu nahiko nuke, haren jakin-mina eta ikasteko grina piztu. Haren etorkizuna ere iraganeko akats berberak ez errepikatzearen mende baitago.

Memoriaren Egun honetan, iraganari begiratzen diogu, etorkizun hobea eraikitzeko. Hori da belaunaldi gazteentzako zentzua: zer gertatu zen jakin, berriz ere gerta ez dadin.

Memoria kritikoa, berrets daitezen bizitzeko eskubidea, pertsonen duintasuna eta Giza Eskubideak. Demokrazia indartzen duten printzipioak eta jarrerak.

Memoria ez da iragana bakarrik. Memoria etorkizuna ere bada.

Gure ardua da biak batzen dituen zubi hau sendotzea eta indartzea, gazteen ezagutza eta konpromisoa sustraitzea.

Memoria kritikoa bakarrik lortuko du hori.

Gogoratu dezagun. Hitz egin dezagun. Konpartitu dezagun.

Egin dezagun hori guztia gugatik eta beraiengatik ere. Infernu hura sekula bizi ez dezagun berriz.

Biktima guztiak gogoan, eskerrik asko.

Hoy me pregunto qué podrá pensar una persona que con 13, 14 ó 15 años nos esté viendo aquí. Siento que nuestra obligación está con esa persona. Con ella. Con él. Quisiera interpelarles, despertar su curiosidad, sus ganas de aprender. Su futuro depende también de que no repitan los mismos errores del pasado.

En este Día de la Memoria miramos al ayer para construir un mejor mañana. Este es el sentido para las generaciones jóvenes: conocer para que nunca se vuelva repetir.

Memoria crítica para reafirmar el derecho a la vida, la dignidad de la persona y los Derechos Humanos. Principios y actitudes que refuercen la democracia.

La memoria no es sólo el pasado. La memoria es también el futuro.

Es nuestra responsabilidad fortalecer y reforzar este puente que une a ambos, afianzar el conocimiento y el compromiso de los jóvenes.

Sólo la memoria crítica lo conseguirá.

Recordemos. Hablemos. Compartamos.

Hagamos todo esto por nosotros y nosotras, y también por ellos y por ellas. Para que nunca volvamos a vivir ese infierno.

En memoria de todas las víctimas. Gracias.

Imanol Pradales

Lehendakaria

María Jesús San José

*Justizia eta Giza Eskubideen sailburua
Consejera de Justicia y Derechos Humanos*



Sailburuaren hitzaldia
ikusi eta entzuteko
Para ver y oír el discurso
de la Consejera



Lehendakari jauna, ahaldun nagusia, alkatea, agintariak, jaun-andreok, egun on.

Aurten ere, Euskadin Memoriaren Eguna ospatzeko elkartu gara euskal herritarren ordezkariak. Dagoeneko hamalau urte igaro dira, Eusko Legebiltzarrak 2010eko azaroaren 10ean lehen adierazpena egin zuenetik.

Memoriarik gabeko gizartea gaixorik dago, eta ankerra da. Gizarte hori galduta dago, bizikidetzeta bideragarri egiteko gutxieneko zoru etiko bat eraikitzeke gai ez bada. Horregatik, euskal gizartea eta euskal erakundeak etsi gabe ari gara lanean terrorismoaren eta legez kanpoko indarkeria polizialaren biktimen memoria ezinbesteko erreferente izan dadin etorkizuneko bake-bizitzan, askatasuna, tolerantzia, justizia eta aniztasunaren errespetua oinarri direla.

Memoria horrek kontakizun partekatu bat eraikitzea ahalbidetuko digu, betiere oinarritzat hartuz alde batera utzi ezin den Giza Eskubideen eta balio demokratikoen defentsa, euskal gizarteak gogor lan egin baitu haien alde. Kontakizun bat behar dugu, behingoan bazterrean utziko duena ukazio, aitzakia edo justifikazio oro, indarkeria, mina, sufrimendua eta gizarte-haustura baino izan ez zenari buruz aritzeko.

Zorroztasun historikoan oinarritutako memoria, zehaztugabetasunetatik, erdi egietatik edo nahita egindako asmakerietatik urrun. Gure iragana konplexutasun osoan ulertzeko beharrean oinarritua, tentaziorik izan gabe min handiena eragiten digun hori estaltzeko, ezkutatzeko edo isiltzeko. Gizarte heldu batek, eta euskal gizartea heldua da, bere iragana kudeatzen jakin behar du, bere pasarteetako batzuk oso zikinak izan arren.

Eta, jakina, biktima guztiak gogoan izango dituen memoria. Salbuespenik gabe. ETArek terrorearen biktimak, GALen indarkeria kriminalak eragindakoak, Batallón Vasco-Españolek eta beste talde biolento batzuen biktimak eta polizien abusuak

Lehendakari, Diputado general, Alcaldesa, autoridades, señores, señoras, egunon.

Un año más, nos volvemos a reunir los representantes de la ciudadanía vasca para celebrar el Día de la Memoria en Euskadi. Ya han pasado catorce años desde aquella primera declaración del Parlamento Vasco del 10 de noviembre de 2010.

Una sociedad sin memoria es una sociedad enferma, inhumana. Es una sociedad perdida, incapaz de construir un mínimo suelo ético que permita la convivencia. Por eso, la sociedad vasca y sus instituciones estamos empeñados en convertir la memoria de las víctimas del terrorismo y la violencia policial ilícita en el referente de un futuro en paz, basado en la libertad, la tolerancia, la justicia y el respeto al pluralismo.

Una memoria que nos permita construir un relato compartido, sustentado sobre el pilar irrenunciable del respeto a los Derechos Humanos y a los valores democráticos por los que tanto ha luchado la sociedad vasca. Un relato que destierre, de una vez por todas, cualquier intento de negación, excusa o justificación de lo que no fue más que violencia, dolor, sufrimiento y fractura social.

Una memoria basada en el rigor histórico, alejada de las imprecisiones, las medias verdades o las invenciones intencionadas. Sustentada en la necesidad de comprender nuestro pasado en su complejidad, sin recurrir a la tentación de ocultar, esconder o silenciar aquello que más nos duele recordar. Una sociedad adulta, y la vasca lo es, tiene que saber gestionar también su pasado, por muy sucios que puedan ser algunos de sus pasajes.

Y, por supuesto, una memoria que recuerde a todas las víctimas. Sin excepción. A las del terror de ETA, a las provocadas por la violencia criminal del GAL, del Batallón Vasco-Español y de otros grupos violentos como aquellas que lo fueron del abuso policial. Toda ellas son víctimas de

eragindakoak. Horiek guztiak dira biktimak, euskal gizarteari beren proiektu totalitarioak beldurraren, estortsioaren eta indarkeriaren bidez inposatu nahi zizkieten biktimak. Baina memoria horrek, era berean, gogora ekarri behar dizkigu une zailtan balio demokratikoa, indarkeriarik eza eta bizikidetzaren defendatu zituzten ahalegina, horiek guztiak Euskadiko memoria demokratikoaren katebegi garrantzitsuak dira-eta.

Gaur, Memoriaren Egun honetan, aldarrikatu nahi dugu zer garrantzitsuak izan ziren beldurra inposatu nahi zigun erritmoan ibiltzeari uko egin, eta isiltasunaren kiribila apurtzea erabaki zutenak, batzuetan modu anonimoan eta beste batzuetan modu ageriagokoa ibili zirenak. Batzuetan, garrantzi publikoko ageriko keinuak egin zituzten, eta garesti ordaindu zituzten. Baina keinu txikiagoak ere egin zituzten, aurrekoak bezain garrantzitsuak. Biktimei aurrez aurre begiratzea erabaki zuten pertsonak dira, gertutasuna erakutsi zietenak. Berotasuna transmititzen duten begiradak eskaini zizkietenak. Gaur egun hutsaltzat har ditzakegu keinu horiek, baina garai hartan ukendu ziren askotan ulertzen ez zen eta aintzat hartzen ez zen minarentzat. Pertsona horiek duintasuna ematen diote gure gizarteari. Balio beza ekitaldi honek haiek gogoan izateko, aintzatesteko eta egindako ekarpena aitortzeko, askatasuna, duintasuna eta tolerantzia oinarri dituen gizarte bat eraikitze bidean.

Isiltasuna apurtu zuten pertsonak gogoratu behar ditugu, beldurrari aurrea hartu eta biktimei hurbiltasuna erakutsi zietenak. Horiek guztiek duinagoa egiten dute gure gizarte.

Amaitzeko, gogora ekarri nahi nuke, berriz ere, 2010eko deklarazioaren ondorio hura, manifestu hark betiko zizelkatuta geratu beharko bailuke egunegun erakitzen ari garen etorkizuneko euskal gizartearen zutabeetan.

«Gaurko eguna, azaroak 10 dituela, dagoeneko egun gogoangarria da gure gizartearen ondarean. Azaroaren hamarra gu guztioi dagokigun urteurrena da. Hemendik aurrera, urteurren honek gogoraraziko digu zer gertatu zen, eta zer ez den gehiagotan gertatu behar, inoiz ere ez. Memoria, biolentziaren biktimak ez daitezen izan, gainera, ahanzturaren biktimak ere. Memoria, biktimak gogoan hartuta, guztiok etorkizun hobea izango dugulako fedeari eta esperantzari ere tinko eutsi diezaiogun.

Besterik ez. Eskerrik asko.

aquellos que pretendían imponer a la sociedad vasca sus proyectos políticos totalitarios a través del miedo, la extorsión y la violencia. Pero también una memoria que recupere los esfuerzos de aquellas y aquellos que defendieron valores democráticos, de no violencia y de convivencia en momentos difíciles, porque son eslabones importantes de la memoria democrática de Euskadi.

Hoy, en este Día de la Memoria, queremos reivindicar el papel de aquellas personas que a veces de forma anónima y a veces de forma más visible decidieron renunciar a caminar al ritmo que nos pretendía imponer el miedo y romper la espiral del silencio. A veces con gestos visibles de trascendencia pública por los que pagaron un alto precio. Pero también con gestos más pequeños, aunque igualmente importantes. Personas que decidieron mirar a la cara a las víctimas, mostrarles su cercanía. Una mirada capaz de transmitir un poco de calor humano. Pequeños gestos que hoy nos pueden parecer insignificantes, pero que en aquel momento suponían un bálsamo para un dolor tantas veces incomprendido e ignorado. Todas ellas, todos ellos dignifican a nuestra sociedad. Sirva este acto para recordarlas, reconocer y poner en valor su aportación a la construcción de una sociedad basada en la libertad, la dignidad y la tolerancia.

Debemos recordar a las personas que rompieron el silencio, a las que se enfrentaron al miedo y mostraron cercanía a las víctimas. Todas esas personas dignifican nuestra sociedad.

Quisiera terminar recordando, una vez más, la conclusión de aquella declaración de 2010, un manifiesto que debería de quedar esculpido para siempre en los pilares sobre los que construimos, día a día, la sociedad vasca del futuro.

«Hoy, 10 de noviembre, es una fecha que pertenece ya a nuestro patrimonio común. El 10 de noviembre es un aniversario que nos pertenece a todos y a todas. A partir de hoy, esta efeméride nos recordará lo que ha ocurrido y lo que, jamás, debe volver a ocurrir. Para que las víctimas de la violencia no sean, también, víctimas del olvido. Para que manteniendo viva su memoria, mantengamos viva nuestra fe y esperanza en un porvenir mejor para todos y para todas».

Nada más. Muchas gracias.

María Jesús San José

*Justizia eta Giza Eskubideen sailburua
Consejera de Justicia y Derechos Humanos*





Biktimen ahotsa

La voz de las víctimas

Entzun
Escúchalas



*Terrorismoaren eta
legez kanpoko polizia-indarkeriaren
biktimen testigantzak*

Iturria: Gogoraren funtsa.
Gogoraren Dokumentazio Zentrua

*Testimonios de víctimas del terrorismo
y la violencia policial ilícita*

Fuente: Fondo Gogora.
Centro de Documentación de Gogora



Jenni Prieto
Kazetaria
Periodista



Jenni Prieto

KAZETARIA | PERIODISTA

Jenni Prietoren testigantza
ikusi eta entzuteko
Para ver y oír el testimonio
de Jenni Prieto



Gu, nire belaunaldikoak, beldurra barruan genuela jaio eta hazi ginen, poliziarenganako izu ikara izanez, torturatu eta erail egiten zutelako. Araztu beharreko ordena-indarrak ziren Polizia eta Guardia Zibila. Egia esan, gaztaroko lehen urteak tortura eta ziega artean, atxiloketa eta beldur artean igaro genituen, edozein unetan zure txanda izan zitekeelako; edo anaia, arreba edo ahizpa batena. Gogorra zen klandestinitatea, eta, horren guztiaren tartean, indar polizialek hil arte torturatu zuten Joseba Arregi. 'Oso latza izan da', esan omen zuen. Mikel Zabalza. Brouarden eta Muguruzaren hilketak gero. GAL agertu zen, eta Lasa eta Zabala. Eta German Rodriguez, sanferminetan. Eta Atochako atentatuak, abokatuen aurkako atentatuak, suntsitu egin gintuen, eta haren aurretik, hemen, Gasteizen, martxoaren 3koa jasan genuen. Martxoaren 3ko biktimei abesti bat egin genien:

***Arratsaldeko bostak dira, Gasteizko erloju guztietan.
Arratsaldeko bostak.
San Frantzisko eliza jendez bete da.
Eta ustekabeen, hiltzaileak han dira
balaz, bonbaz eta amorrus beteta.
San Francisco elizan gris amorratuen ehiza.***

1976 hartan, deitu ziguten agertoki guztietan abestu genuen.

Indar errepresiboak apurtu! Poliziaren, indar polizialen jazarpena eta tortura eguneroko ogi ziren guretzat. Baina aurrera jarraitzen genuen borrokan. Benetan? Torturez eta polizia-indarkeriaz hitz egingo didazu niri?

Gure borroka-zaldia indar polizialak araztea zen.

Eta 77ko amnistiarekin ETArene bertan behera geratuko zela pentsatu ere egin genuen; baina ez zen hala izan. Eta denbora gehiegi behar izan genuen mobilizatzeko.

Nosotros, los de mi generación nacimos y crecimos con el miedo- pánico a la policía, porque torturaban y asesinaban. La policía y la guardia civil eran las fuerzas del orden que teníamos que depurar, en realidad vivimos nuestras primeras juventudes entre torturas y calabozos, detenciones y miedo, pánico porque en cualquier momento te tocaba a ti. O a tu hermano. La clandestinidad era dura, y en medio de todo aquello las fuerzas policiales habían torturado hasta la muerte a Joseba Arregi, 'oso latza izan da'. Esan omen zuen. Mikel Zabalza. Y siguieron los asesinatos de Brouard, Muguruza, y apareció el GAL, eta Lasa eta Zabala. Y German Rodríguez en San Fermín. Y el atentado de Atocha nos devastó, y antes de aquello, aquí en Vitoria habíamos sufrido el 3 de marzo. A las víctimas del 3 de marzo les hicimos una canción:

***Son las cinco de la tarde en todos los relojes de la ciudad.
Cinco de la tarde.
La iglesia de San Francisco se ha llenado de gente.
Y por casualidad, los asesinos están allí
lleno de balas, bombas y furor.
En la iglesia de San Francisco, grises furibundos de caza.***

Cantamos en todos los escenarios a los que nos llamaron aquel año 1976.

Indar errepresiboak apurtu! Que la policía, las fuerzas policiales, nos perseguían y nos torturaban lo llevábamos encima todo el tiempo. Pero seguíamos adelante con nuestra lucha. ¿En serio? a mí me vas a hablar de torturas y de violencia policial?

Lo de la depuración de las fuerzas policiales era nuestro caballo de batalla.

Niri ere gertatu zitzaidan; ez nion pertsonalki Mario Onaindiari sekula esan, baina hil zenean konturatu nintzen; berandu zen jada. Orduan, arrazoi zuela aitortzeko, esateko beharra sentitu nuen, eta nik barru-barruan banekiela hala zela esatekoa. Armekin ezetz, ezin genuela langileen eta emakumeen eskubideen eta berdintasunaren eta askatasunaren aldeko borroka eta ia egunero izaten ziren hilketak, berunezko urteak, guardia zibil eta polizia nazionalak nahasten jarraitu, Euskal Herriaren askatasunaren, independentziaren izenean; 'Jo ta ke irabazi arte! Irabazi ala hil'.

Itsututa egon nintzen nire eguna iritsi zen arte, Idoia Estornes Zubizarretak 'Cómo pudo pasarnos esto' liburuan dioen bezala. Guztiok dugu egun bat. Nire kasuan, gehiegi izan ziren. Militante nintzen erakunde, ezkerrekoa, iraultzailea, esaten zen... jakina gaudela ETAREN hilketen aurka... baina ezin dugu jendaurrean esan, eskuinarekin lotuko gaituztelako. Horixe zen argudio nagusia.

Eta Mario Onaindia hil zenean, bere emazte Esoziri honelaxe esan nion bat-batean harekin topo egin nuen batean: Esozi, barkamena eskatzen dizut, oldarkor aritu naizelako Mariorekin, haren erakundearekin eta alderdikideekin eta hark ordezkatzan zuen guztiarekin, adierazten zuenean ETA desmuntatu behar zela, ETA geldiarazi behar genuela, ameskeria hartatik, gezur hartatik, doilorkeria sozial hartatik aldendu beharra geneukala, ezkerreko iraultzaile izatea ez zela garondoan tiro egitea hedatzen, txalotzen eta justifikatzen zuten erakundeak bultzatzea, haiei botoa ematea eta urteetan bere horretan eustea; eta abestiekin eta jaialdietan, talde terroristak eragindako izua txalokatu egiten zen. Imanol Larzabalek ere eman zidan beste aukera bat, Yoyes omentzeko egin zen jaialdi hartan, zeina bere erakundeak berak hil baitzuen. Imanolek ere planto egitera, aurpegia ematera, salatzera animatu eta behartu ninduen.

Eta 1995eko urtarrilaren 23an ETAK Gregorio Ordoñez hil zuen. Ezagutzen genuen elkar, irrati bateko mahai-inguru batean kointziditu genuelako. Kontua da nik asko eztabaidatu nuela harekin, esaten zuen guztia ikaragarria iruditzen zitzaidalako. Eta urtarrilaren 23 hartan, ETAK Gregorio Ordoñez hil zuela jakin nuenean, hil egin nintzen. Larriminez, amorruz, penaz, ausikiz eta damuz. Konplize eta errudun sentitu nintzen, seguru asko.

Hura izan zen nire eguna, eta harrezkero ez naiz gelditu. Eta ez naiz inoiz geldituko, eta ez dut sekula nire aurrean

Y llegamos a pensar que con la amnistía del 77, lo de ETA pararía, pero no fue así. Y tardamos demasiado en movilizarnos.

Y mí también me pasó, nunca se lo dije personalmente a Mario Onaindia, me di cuenta cuando se murió. Ya era tarde. Entonces se me vino encima la necesidad de reconocérselo, de decirle que tenía razón y que yo en el fondo lo sabía. Que con las armas no. Que no podíamos seguir confundiendo la lucha por los derechos de los trabajadores, de las mujeres, por la igualdad y la libertad con los asesinatos casi diarios, los años de plomo, de guardias civiles y policías nacionales, en nombre de la libertad del pueblo vasco, la independencia. Jo ta ke irabazi arte. Irabazi ala hil.

Y estuve ciega hasta que llegó mi fecha. Como dice Idoia Estornes Zubizarreta en su libro, 'Cómo pudo pasarnos esto'. Todos tenemos una fecha. En mi caso fueron demasiadas fechas. En la organización en la que yo militaba de izquierdas y revolucionaria se decía: pues claro que estamos en contra de que ETA mate, pero no podemos decirlo en público porque nos situarán con la derecha. Era el gran argumento.

Y cuando Mario Onaindia murió se lo dije a su mujer, Esozi, a bocajarro un día que me la encontré, 'Eso sí te pido perdón porque fui hostil con Mario y con todo lo que él representaba' cuando demostraba que había que desmontar ETA, que debíamos parar a ETA, que había que salir de aquel espejismo, de aquella mentira, de aquella vileza social, que ser de izquierdas revolucionarias no era secundar y votar y sostener en el tiempo a las organizaciones que propagaban, aplaudían y justificaban el tiro en la nuca, y con canciones y en festivales, el terror de la banda terrorista. Imanol Larzabal también me dio otra oportunidad en aquel festival en homenaje a Yoyes, asesinada por su propia organización. Imanol también me animó y me conminó a plantarme, a dar la cara, a denunciar.

Y el 23 de enero de 1995, ETA asesinó a Gregorio Ordoñez y yo lo había conocido porque había coincidido con él en un debate, en una radio. El caso es que yo discutí mucho contra él porque me parecía horrible todo lo que decía, claro. Y aquel 23 de enero cuando supe que ETA había asesinado a Gregorio Ordoñez me morí. De angustia y de rabia y de pena y de remordimiento y de arrepentimiento, seguramente me sentí de alguna manera cómplice y culpable. Esa fue

gorroto-adierazpenik txikiena ere onartuko, armiarma-sare bat balitz bezala oharkabean korapilatuz doan gorroto horren adierazpenik txikiena ere, Aramburuk bere 'Patria' nobelan hain ederki esaten duen hori, ni bezala errudun sentitzen direnak hainbeste haserretzen dituen hori. Nahiago baitute ez onartu, bizirik irauteko. Gizakiak hain berezkoa duen doilorkeria. Denok izan gaitezke doilorrak. Autokritika ausartena da.

Eta Gregorio Ordoñezengatik lehenengo aldiz hartu nuen parte Bakearen Aldeko Koordinakundearen kontzentrazio batean. Kontramaniestazioak aurrez aurre genituen; nire burkide ohi berriak.

Eta handik aurrera ez ginen gelditu, ETAren hilketek jarraitu egin zutelako. Zergatik ez ote nintzen lehenago atera? Erreakzionatzeko, norberari edo norberaren familiakoren bati gertatu behar zaion? Begira, bada, bai. Eta handik aurrera irribarre egiteari utzi nion. Miguel Angel Blancorenarekin, Fernando Buesarenarekin –hainbeste aldatu zigun bizitza–, Jorge Díezenarekin, nola egiten zuen negar nire aitak! Nola, Gasteiz osoak, kalean, Fernando Buesaren hilkutxaren atzetik, egun hartan... 2000ko otsailaren 22 hura jende askoren eguna izan zen.

Zergatik ez ote nintzen ni lehenago atera. Zenbat harrokeria eta zenbat handiuste, zenbat sektarismo, nolako defizit etiko handia, euskaldunon herri honetan, inolako justifikaziorik ez duena justifikatzeko. ETAko presoan aurpegiak dituzten pankartak, herrietako jaietan.

Heroiak direla esaten diete. Haiek badakite ez dela hala.

Badakidalako zer sentitzen den errudun sentitzen zarenean. Horregatik, badakit biktimekin dudan zor moralak ez duela sekula preskribatuko. Eta nire penitentzia kontatzea da, kontatzen jarraitzea, mundu guztiari, gure seme-alabei. Kontatu behar zaie nola bihur gaitezkeen konplize konturatu gabe.

mi fecha. Y ya desde entonces no paré. Y nunca pararé y nunca consentiré en mi presencia la más mínima expresión de odio, de ese odio que se va entretejiendo sin que te des cuenta como una tela de araña, (que tan bien cuenta Aramburu en su novela 'Patria', que tanto enfurece a los que en el fondo se sienten culpables, como yo). Aunque prefieren no reconocerlo, por supervivencia. La ruindad tan propia del ser humano. Todos podemos ser ruines. La autocrítica es de valientes.

Y por Gregorio Ordoñez salí a mi primera concentración de Gesto por la Paz. Con las contramanifestaciones. Enfrente, mis recientes ex camaradas.

Y ya no paramos de salir porque los asesinatos de ETA siguieron. Que por qué no salí antes. ¿Es que te tiene que pasar a ti o a alguien de tu familia para que reacciones? Pues mira sí. Y a partir de ahí dejé de sonreír. Cuando Miguel Angel Blanco, cuando Fernando Buesa que nos cambió tanto la vida, con Jorge Díez, cómo lloraba mi padre, cómo lloraba Vitoria entera en la calle tras el fétetro de Fernando Buesa aquel día. Aquel 22 de febrero de 2000 fue la fecha de mucha gente. De mucha.

Por qué no salí yo antes. Cuánta arrogancia y cuánta soberbia, cuánto sectarismo, qué gran déficit ético, en este país de los vascos para justificar lo que no tiene ninguna justificación. Las pancartas con las caras de los presos de ETA en las fiestas.

Les dicen que son héroes. Ellos saben que no lo son.

Porque sé lo que se siente cuando te sientes culpable. Por eso sé que mi deuda moral con las víctimas nunca prescribirá. Y mi penitencia es contarle, seguir contándolo, a todo el mundo, a nuestros hijos, hay que contarles cómo podemos convertirnos en cómplices sin darnos cuenta.

Jenni Prieto

Kazetaria

Periodista

Xabier Euzkitze
Bertsolaria



Ekaitz Goikoetxea
Bertsolaria

Bertsoz bertso

Verso a verso

Xabier Euzkitze

**Lotsa ematen dit biktimokiko
izan dugun hoztasunak,
Bortxa betean sentiarazi
dizuegun hustasunak;
lotsa ematen dit zegokigunak
eta egin ez dugunak.
Bizkarrezurra okertu arren
erruaren zama astunak
denok elkarren ondoan aurki
gaitzala etorkizunak.**

*Me avergüenzo de nuestra frialdad
en relación a vosotros/as, las víctimas,
del vacío que os hemos hecho sentir
en tiempos de cruda violencia;
me avergüenzo de lo que nos correspondía hacer
y no hemos hecho.
Aunque el peso abrumador de la culpa
encorve nuestra espina dorsal,
esperemos que el futuro nos encuentre
a todos/as unido/as.*

Ekaitz Goikoetxea

**Zenbat hildako, tortura kasu,
mehatxu eta zauritu,
nahiz ta biktimak aldiro gure
eskuen eske aritu,
urte luzetan nola ez dugu
isiltasun hau aditu
badaki noren hezurak miztu
ta norengan haragitu
bakardadeak bi begi, min bat
ta izen abizenak ditu.**

*Cuántos muertos, casos de tortura,
amenazas y heridos,
aunque las víctimas nos pidieran
ayuda a cada paso,
cómo no hemos oído ese silencio
durante largos años,
que sabe los huesos de quién lamer
y en quién encarnarse,
la soledad tiene dos ojos, un dolor
y nombre y apellidos.*

*Bertsolarien lana
ikusi eta entzuteko
Para ver y oír el trabajo
de los bertsolaris*



Bertsoz bertso Verso a verso

Lehenengo saioa | Primer verso



Biktimen ahotsa (2)

La voz de las víctimas (2)

Entzun
Escúchalas



*Terrorismoaren eta
legez kanpoko polizia-indarkeriaren
biktimen testigantzak*

Iturria: Gogoraren funtsa.
Gogoraren Dokumentazio Zentrua

*Testimonios de víctimas del terrorismo
y la violencia policial ilícita*

Fuente: Fondo Gogora.
Centro de Documentación de Gogora



Ekaitz Goikoetxea

***Biktimen min ta sufrimendua
ez bada erreparatzen
gu ta gutarrok gisako lemak
ez zaizkit asko gustatzen.
Ez eskainuek, ez botoek,
bihotzak daki maitatzen,
hasi gaitezen alderdi horri
partidua ateratzen.***

*Si el dolor y el sufrimiento de las víctimas
no se repara
lemas como nosotros/as y los/as nuestros/as
no me gustan demasiado.
Ni los escaños, ni los votos,
el corazón sabe amar,
empecemos a sacar partido
a ese aspecto.*

Xabier Euzkitze

***Irakurtzeke nola pasatu
historiaren orriak
garrasika ari zaizkigularik
pasarte izugarriak?
Ondo finkatu beharko dira
bidea eta oinarriak
denon habia izan nahi badu
biharko Euskal Herriak.***

*Cómo pasar sin leer
las páginas de la historia,
si hay episodios aterradores
que no dejan de gritarnos?
Habrá que fijar como es debido
el camino y los cimientos,
si el País Vasco del futuro
quiere ser un nido para todos/as.*

*Bertsolarien lana
ikusi eta entzuteko
Para ver y oír el trabajo
de los bertsolaris*



Bertsoz bertso Verso a verso

Bigarren saioa | Segundo verso





Biktima guztiak gogoan
Recordando a todas las víctimas



**«Nazio edo pertsona batek
bere iraganari aurre egiteko
modu bat baino gehiago aurki ditzake,
baina bakar bat ere ez
entzungor egiteko»**

«Una nación o persona
pueden encontrar varias formas
de enfrentarse a su pasado,
pero ninguna de ignorarlo»

Elie Wiesel

*Idazle errumaniarra, Auschwitzetik bizirik atera zena
eta Bakearen Nobel Saria*

*Escritor rumano, superviviente de Auschwitz
y Premio Nobel de la Paz*

Memoriaren,
Bizikidetzaren eta
Giza Eskubideen
Institutua

Gogora

Instituto de la Memoria,
la Convivencia
y los Derechos Humanos



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA GIZA
ESKUBIDEEN SAILA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y
DERECHOS HUMANOS